



Apar festan ederki pasa ohi dute urtero Buenavistako haurrek. SARA IBARGUREN

Urtetik urtera indartsuago, hemen dira Buenavistako jaiak

Gaur botako dute txupinazoa, eta, igandera bitarte, jai giroan murgilduta egongo dira Altzako Buenavista auzunean. Jai gazteak dira, baina, pixkanaka, auzotarren artean errotzen ari dira.

Beñat Parra Rodriguez

Larratxoko jaiak astelehenean bukatu ziren, baina jai giroa ez da asko urrunduko Altzatik egunotan: atzo bota zuten txupinazoa Herreran eta gaur botako dute Buenavistan, asteburu osoko jaiak hasiera emateko.

Jai batzordeko kideek azaldu dute-nez, «bereziki, gazteentzako eguna» izango da gaurkoa: «Haurrentzako

jarduera asko ditugu jaietan, baina nerabeentzako gauzak ere antolatu ditugu, bereziki, ostiralekoak. Pixkanaka, auzoko belaunaldi horrengana gerturatu nahi dugu». Hain zuzen ere, Osto DJ-ak girotuko du txupinazoa, bingo musikatu egingo dute jarraian eta, herri afariaren ostean, Osto DJ-a itzuliko da oholtzara, baina Zuha ZF DJ-ekin oraingoan.

Larunbata, haurrentzako eguna

Larunbata da Buenavistako jaietako egun handia, jai batzordeko kideen arabera, «haurrentzako eguna»: «Goizean jolasak, arratsaldean apar festa, txokolate jana, Mikeltxi DJ-aren haurrentzako disko festa... Era berean, parrillan egindako txorizoa eta hirugiharra eskainiko ditugu aurten».

Igandean, jaiak borobiltzeko, haurrentzako jarduera batzuk antolatu dituzte goizean, eta herri bazkari arrakastatsua egingo dute eguerdian: «Adin askotako auzotarrak elkartzen gara bazkarian, eta oso giro polita egoten da», nabarmendu dute jai batzordekoek. Arratsaldean, bingoarekin, mus txapelketarekin eta Casares Kultur Etxearen laguntzarekin antolatutako *Marietak Zirkus* (Zirika Zirkus) ikuskizunarekin bukatuko dituzte festak.

Gero eta indartsuago

Jai gazteak dira Buenavistakoak, hogeituroteko etenaldiaren ostean, 2023an berreskuratu baitzituzten. Horrela, zailtasunen gainetik, urtez urte jaiak indartzen ahalegintzen dira jai ba-

tzordeko kideak: «Urtero berritasunen bat sartzen saiatzen gara, jarduera gehiago antolatzen. Aurten, esaterako, zezensuzkoa bi egunetan antolatzea lortu dugu, orain arte ostiralean soilik ateratzen baitzen».

Ildo horretatik, jai batzordean modu aktiboan «gutxi batzuk» badabiltza ere, kideek nabarmendu dute jaietan «auzotar asko» inplikatzeko direla: «Txosnan egoteko, jardueren koordinazioan, behar denean laguntzen... Oso garrantzitsua da auzotar guztien parte hartzea». Horrela, argi dute bide horretatik jarraitu nahi dutela: «Helburua da horrela jarraitzea, gero eta jende gehiagok parte hartzea eta jai ahalik eta indartsuenak sustatzea».

Jai gazteak dira Buonavistakoak, baina zailtasun guztien gainetik, urtez urte, jaiak indartzen ahalegintzen dira

Jai gazteak izanik ere, antolatzailerik diotenez, auzoan errotzen hasiak dira, eta, hain zuzen ere, auzotarrak jaiak hasteko irrikaz ikusten dituzte: «Haurrak daude gogoz, bereziki; azken finean, asteburu desberdin bat da, etxe azpian!». Kezka bakarra dute buruan, hiri honetako edozein jai batzordek edukitzen duena bere jaiak hastear direnean: «Orain, betikoa, ea zer eguraldi daukagu!». ●

OSTIRALA 13

19:00

Txupinazoa, Osto DJ-arekin eta buruhandiekin.

20:15

Bingo musikatua.

21:00

Herri afaria
(bakoitzak egindakoa).

22:00

Osto DJ-a eta Zuha ZF.

22:45

Zezensuzkoa.

LARUNBATA 14

11:30

Kalejira buruhandiekin.

12:30

Herri jolasak.

16:15

Apar festa (toalla, txankletak eta bainujantzia ekarri).

17:30

Txokolate jana.

18:00

Disco Txiki, Mikeltxi DJ-arekin.

19:30

Afari-merienda: txorizoa eta hirugiharra.

20:00

Kontzertua: Leire.

22:00

Mikeltxi DJ-a.

22:45

Zezensuzkoa.

IGANDEA 15

11:00

Puzgarriak.

11:30

Toka txapelketa.
Haurrentzako marrazki lehiaketa.

12:30

Buruhandiak.

14:30

Herri bazkaria,
Euskal Parrillarekin.

16:00

Bingo.

17:00

Mus txapelketa.

18:30

Zirika Zirkus konpainiaren *Marietak*
Zirkus ikuskizuna.
Ondoren, jaien amaiera.



Ikur honek euskara
erabiltzeko aukera
bermatzen dizu



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

www.donostiaeuskaraz.eus